

BERME EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA
1183/2020 Errege Dekretuaren 23. artikulua

Abenduaren 29ko energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko sareetara sartzeari eta konektatzeari buruzko 1183/2020 Errege Dekretuaren 23. artikulua jarraituz, (elektrizitatea sortzeko instalazioen sarbide- eta konexio-prozedurak izapidetzeko beharrezkoak diren berme ekonomikoei buruzkoa), eskatzaileak, garraio-sarera edo, hala badagokio, banaketa-sarera sartzeko eta konektatzeko eskaera egin aurretik, berme ekonomiko bat gordailutu beharko du, instalatutako 40 €/ kW-ren baliokidea, aplikatzen dion araudian jasotako salbuespen eta murrizketekin. Era berean, instalazioaren baimena emateko eskumena duen organoari eskatu beharko dio bermea behar bezala eratuta dagoen adieraz dezala.

Bi izapide horiek argitzeko, informazio-ohar hau egin da. Berme ekonomikoak itzultzeari buruzko hirugarren atal bat ere gehitu da.

1. BERMEA GORDAILUTZEA

Autonomia-erkidego honen eskumeneko instalazioen kasuan, bermea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailutu beharko da.

Bermeak honakoen bidez aurkez daitezke: banku-abala, kuzio-asegurua, taloi konformatua, banku-txekea, eskudiruaren edo banku-transferentzia.

1.1 Abala edo kuzio-asegurua:

Aurrez aurre edo posta elektronikoz egin daiteke.

Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian aurrez aurre egiten bada, jatorrizko dokumentua aurkeztu beharko da.

Posta elektronikoaren bidez egiten bada, abalak edo aseguru-ziurtagiriak banku-erakundearen edo aseguru-konpainiaren sinadura digitala izan beharko du. Sinadura baliozkoa dela eta dokumentua zuzena dela egiaztatu ondoren, erregistratu egingo da, eta erregistroaren ordainagiriaren kopia bat bidaliko zaio interesdunari.

Abala edo kuzio-asegurua Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren alde egin beharko da (IFZ: S-4833001-C).

Aseguruaren edo abalaren helburua energia sortzeko edo biltegitatzeko instalazioa ustiatzeko baimena lortzea izango da, eta instalazioaren izena, teknologia, potentzia eta kokapena (herria, udalerrria eta lurralde historikoa) adierazi beharko dira, 1183/2020 Errege Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

1.2 Banku-transferentzia:

Aldez aurretik, mezu elektroniko bat bidali beharko da honako datu hauekin: titularra, IFZ, kontzeptua eta zenbatekoa, espedientea kudeatzen duen saila Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila dela adieraziz. Diruzaintzak mezu horri erantzungo dio kontu-zenbakia bidalita.

Diru-sarrera egin ondoren, horren egiaztageria bidali beharko da, eta diru-sarrera banku-kontuan berretsi bezain laster, bermea erregistratuko da, eta interesdunari erregistroaren ordainagiriaren kopia bat bidaliko zaio.

Transferentziaren kontzeptuan, instalazioaren izena, teknologia, instalatutako potentzia eta kokapena adierazi behar dira, bai eta 1183/2020 Errege Dekretuaren 23. artikuluari buruzko aipamena ere. (Adibidea: 1183/2020 Errege Dekretua, art. 23. – Fotovoltaikoa – 100 kW – Industria XXX – Gasteiz/Araba).

1.3 Diruzaintzako gordekina:

Diruzaintzak sortutako gordekinean, 1183/2020 Errege Dekretuaren 23. artikulua arabera, artikulua horren aipamena eta instalazioaren datu hauek jasoko dira: teknologia, instalatutako potentzia, izena eta kokapena.

Horretarako, datu horiek jaso behar dira transferentziaren kontzeptuan, abalaren edo kuzio-aseguruaren helburuan, diruzaintzarako idatzian, etab.

Adibidea (gehienez 80 karaktere):

1183/2020 ED art. 23. – Fotovoltaikoa – 100 kW – Industria XXX – Gasteiz/Araba

1.4 Harremanetarako informazioa:

Sinadura elektronikodun abalak eta aseguruak edo egindako banku-transferentziaren ordainagiriak jasotzeko helbide elektronikoa hau dago gaituta: tesoreria-aval@euskadi.eus.

Jendaurreko ordutegia: 09:00etatik 13:00etara

Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusia
Eusko Jaurlaritzak
Donostia- San Sebastián Kalea, 1
VITORIA-GASTEIZ

Telefonoa: 945 01 89 23

2. BERMEA EGOKI ERATZEARI BURUZKO ERABAKIA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, instalazioaren baimena emateko organo eskuduna den aldetik, berme ekonomikoa behar bezala aurkeztu dela berresteko eskaera egiteko, "Bestelako komunikazioak" atalaren GE-X ibilbidea erabiliko da, "Bestelako komunikazioak" azpiatalean.

Eskabidea elektronikoki egin beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean adierazitako salbuespenekin.

Eskaera bat aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzako Diruzaintzak emandako frogageria erantsita. Eskabide-dokumentuak, gutxienez, datu hauek jaso beharko ditu:

- Sorkuntza-instalazioaren datuak: titularra, teknologia, izena, potentzia eta kokapena (herria, udalerrria eta lurralde historikoa);
- 1183/2020 Errege Dekretuaren 23. artikulua aipamena;

- Sarrera eta konexioa eskatzea aurreikusten den garraio- edo banaketa-sarea. Sareen kudeatzaileek web-plataformetan sartzeko duten gaitasuna adierazten duen nodoa bada, konexio-nodo zehatza adierazi beharko da.

Informazio gehiago eta izapidetze elektronikorako sarbidea:

<https://www.euskadi.eus/procedimiento/ge/web01-a2energi/es>

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan dagokion lurralde-ordezkaritzarekin:

ARABAKO INDUSTRIA ADMINISTRAZIOKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Samaniego, 2
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 017770

INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Concha Jenerala, 23
48010 Bilbo
Tel. 94 4031400

GIPUZKOAKO INDUSTRIA ADMINISTRAZIOKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Easo, 10
20006 Donostia
Tel.: 943 022500

3. BERME EKONOMIKOAK ITZULTZEA

Berme ekonomikoaren eskaera, 2. puntuan bezala, "Bestelako komunikazioak" ataleko GE-X ibilbide baten bidez izapidetuko da, "Bestelako komunikazioak" azpiatalean.

Eskabidean honako hauek adierazi beharko dira:

- a) Diruzaintzako gordekinaren data, zenbatekoa eta erreferentzia-zenbakia, edo gordekinaren kopia.
- b) Aipatzen den instalazioa: titularra, teknologia, izena, potentzia eta kokapena (herria, udalerría eta lurralde historikoa)
- c) Instalazioa eginda eta sarera konektatuta badago, martxan jartzeko erantzukizunpeko adierazpenaren (GE-A) edo zerbitzuan jartzeko eskaeraren (GE-V) espedienteá, administrazio-baimena behar ez duen edo behar ez duen instalazioa den kontuan hartuta.
- d) Instalazioa gauzatu ez bada, bermea egikaritzetik salbuesten duen justifikazioa.